

“11 EGUN EUSKARAZ” EKIMENA GERNIKA-LUMON EGITASMOA

AURKIBIDEA:

- 1.- SARRERA (ESEP: helburuak)
- 2.- SUSTATZAILE BATZORDEA GERNIKA-LUMON
- 3.- GERNIKA-LUMOKO UDALERRRIRA NOLA EGOKITU
- 4.- ORGANIGRAMA / MAILA BAKOITZEKO FUNTZIOAK
- 5.- SUSTATZAILE BATZORDEA / LAN NABAKETA
- 6.- EKIMENERAKO BALIABIDEAK / AURREKONTUA

ERANSKINAK:

1. ERANSKINA: 365 EGUN EUSKARAZ txostenaren laburpena
2. ERANSKINA: “11 egun euskaraz” ekimenerako proposamena
3. ERANSKINA: KRONOGRAMA

1.- SARRERA

Honako ekimena egitasmo orokorrago baten barruan kokatu dago:: 365 EGUN EUSKARAZ (**1. Eranskina**: txosten orokorraren laburpena) eta Eusko Jaurlaritzak 2017an bi urteko plangintzetarako egindako diru laguntza deialdian aurkeztu izan dugu.

Helburu orokorra: herritar euskaltzaleak aktibatuta, hizkuntza ohiturak aldatzea. Horrekin lotuta, hona ekarri behar ESEP-en arabera moldatutako ekintza berezia 2017ko Kudeaketa Planean:

- Helburu estrategikoak lortzeko zehar lerroak
- **Euskararen zabalkundea:**
- Esparrua (15): Barruko proiektzioa
- Ekintza: 15.1.2.1. "Euskaraz 365 egun" ekimenaren barruan "Baietz 11 egun euskaraz elkarrekin" egitasmoari begirako lanketa

Eta "11 egun euskaraz" ekimen horren **helburu zehatza**, hauxe (**2. Eranskina**: "11 egun euskaraz" ekimena-proposamena): Euskaltzaleak aktibatu beren egunerokoan euskaraz bizitzeko urratsak eman ditzaten. **2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra garatuko da Euskal Herri osoan.**

Horiek kontuan, ekimen horretan parte hartzeko ezinbestekoa da babes soziala eta, ildo horretatik, beharrezkoa da herri mailan Sustatzaile Batzordea eratzea, ekimenean parte hartzeko udalerriaren "izena" ematea dagokiona eta garapena zein jarraipena egiteko ardura izango duena.

Ekimenaren aurkezpenak egin izan dira lurraldeka, 2017ko Udaltop jardunaldietan ezagutzera eman zenetik. Bitartean, kronograma bat ere finkatu da (**3. Eranskina**) 2017 eta 2018 urteetarako.

2.- SUSTATZAILE BATZORDEA GERNIKA-LUMON

“Euskara 365 egun” egitasmoari buruzko txosten orokorrera jo behar dugu eratu nahi dugun Sustatzaile Batzorde horren ezaugarri nagusiak jakiteko:

- **Dinamika orokorra tokian tokiko errealitatera egokitzea.** Proposatutako den ekimena herriko kronogramara, eragileetara eta xede-taldeetara egokitu behar da, tokiko beharrei erantzuteko.
- **Tokiko euskalgintzako eragileen arteko elkarlanetik gauzatzea.** Ekimena bultzatzeko tokiko euskaltzaleen taldea osatu behar da, eta bertan egotea komeni da udaleko euskara zerbitzua (teknikaria eta arduradun politikoa), euskaltzaleen elkarteak edo euskararen erabilera sustatzea helburu duen gizarte-eragilea, ikastetxeak, euskaltegiak eta abar. Euskararekiko ardura duten bestelako entitateak ere izan daitezke sustatzaile. Talde hori koordinatu eta lanak egiteko, gainera, pertsona bat liberatzea komeni da.
- **Parte hartzaileak prestatzea.** Hamaika egun horietan eta ostean hizkuntza praktikak alda ditzaten, *ahobizi* zein *belarriprest* izateko deia egin, sentsibilizazio lana egin, formazioa eskaini, ahaldundu eta baliabideak eman behar zaizkie herritarrei. Era berean, erdaldun euskaltzaleentzako formazioa eskaintzea baliagarria da (parte hartzaile izan ez arren).
- **Prestaketarako eta bidea egiteko denbora hartzea.** Aurretik aipatutako lanak gauzatzeko eta ekimenean jende berria inplikatzeke denbora behar da; hamaika egun horiek bezain garrantzitsua da prozesua.
- **Ekimena gauzatu ahal izateko baliabideak izatea.** Proposamen hau garatu nahi duen entitate edo herri bakoitzak proiektu bat prestatu beharko du. Baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta herri mailako komunikaziorako baliabideak hartu behar dira kontuan.

Beraz, aipatu **Sustatzaile Batzordea eratzeko**, daukagunetik abiatu eta osatzea pentsatu dugu:

- **Oinarria.-** Hitzargune-ko (enpresa, merkataritza eta elkarteetan esparruetan hitzarmengintza lantzeko kanpaina) Talde Eragilea (euskalgintza):
 - AEK euskaltegia (Berbalagun,...)
 - Seber Altube ikastola.
 - Busturialdean euskaraz bizi elkarte
 - Hitzarguneko Arduraduna
- **Talde eragilea hurrengoekin osatu:**
 - Euskara zinegotzia + Hizk. Norm. Teknikaria (Udala)
 - Udal taldeen ordezkariak (2 zinegotzi)
 - “11 egun euskaraz” dinamizatzeko arduraduna (Artez)
 - Aita Villasante Udal Euskaltegia
 - Gernika Institutua
 - Maier enpresa + erabilera Plana duen enpresa bat
 - Sindikatuak (ELA eta LAB)
- **Talde eragilearen laguntza taldea.-** Partikularrei aukera emango zaie Talde Eragilearekin elkarlanean aritzeko eta hausnarketa zein erabaki orokorretan ere parte hartzeko.

Guztira 12/13 kide lirateke Batzorde horretan, gehi parte hartzeko borondatea azalduko luketen partikularrak.

Partikularren partaidetza lantzeko, prentsa oharra prestatu eta komunikabideetan zein sare sozialetan egingo litzateke zabalkundea gonbitea eginez (telefono zk., helbide elektronikoa).

3.- GERNIKA-LUMOKO UDALERRIRA NOLA EGOKITU

“11 egun euskaraz” ekimena Gernika-Lumoko udalerrira egokitzea Sustatzaile Batzordeari dagokion arren, proposamen bat tajutzea komenigarria deritzogu eta, horretarako, hurrengo irizpide hauek azpimarratzea:

- **Gernika-Lumoko egoera soziolinguistiko orokorra kontuan,** partaide kopurua mugatu. Beste esperientzia arrakastatsu batzuetan oinarrituta, Lasarte-Oriakoa hartuko genuke eredutzat (biztanleria 17.000; ezagutza, euskaldunak %40 + ia euskaldunak %27 eta erabilera %20): 2.300 biztanlek hartu zuten parte.

Gure udalerriko biztanle kopurua ere horretantxe dago (16.952): euskaldunak %67 (11.300 biztanle) + ia euskaldunak %16 (2.700 biztanle) eta erabilera %49.

- **Partaide multzoak:** Lasarte-Orian 400 ahobizi + 1.900 belarriprest. Gure udalerriaren tipologiaren arabera, kontuan harturik euskaldun eta ia euskaldunen kopuruak, komenigarria litzateke euskaldungoaren partaidetza lantzea gehiago (1.600 ahobizi) eta ia euskaldunena neurritratzea (500 bat belarriprest). Horrek ez du esan nahi prebisioak beteko direnik; biztanleen erantzuna eta konpromisoaren arabera jokatu beharko da.
- Kanpaina geografikoki hedatu (Errenteria, erdi-gunea, Juan Calzada, Lurgorri,...) ala **gizarte esparruka jokatu** (irakaskuntza, elkarteak, enpresak, merkataritza,...). Gure hizkuntza politikaren nondik norakoen arabera, errazagoa zaigu gizarte esparruka jokatzeko, partaidetza foroak eta kanpainak horren arabera daudelako egokituta eta euskaltzale sareak ere dinamika horiekin lotuta:
 - **Udal sailak eta langileak** (saila bakoitzeko udal langile bat inplikatzeko ahalegina egin, lankideekiko zubi lana egingo lukeena).
 - **“Hitzargune”** kanpaina (elkarteak 59 –kirola, kultura, ongizatea-, enpresak 51, merkataritza 207 –merkataria eta

- ostalariak-, enpresetako Erabilera Planak –hiru enpresetan daude-).
- **Euskalduntze-alfabetatzea** (euskaltegietako ikasleak –300 bat-, Berbalagunaren ingurukoak -90 bat eragin zuzena dutenak eta beste 100 bat zeharreko eragina jasotzen dutenak-).
 - **Irakaskuntza** (Udal Eskola Kontseilua, eskolaz kanpoko ekintza komunak, Normalkuntza Planak, gurasoengan eragiteko kanpainak,...)
 - **Kultura** (liburutegiarekin elkarlanean garatzen dugun irakurzaletasunerako egitasmoa, Kultur Etxearekin koordinazioa eta bertako erabiltzaileengan eragiteko bideak jorratu –facebok-)
 - **Kirola** (Kirol Patronatoaren eredia eta kiroldegiko erabiltzaileengan eragiteko modua)

Aipatu irizpideak kontuan hartzekoak izango dira aurrerago aurrekontu zirriborro bat egokitu ahal izateko, gure udalerrian ekimena garatu nahi badugu ezinbestekoa zaiguna.

4.- ORGANIGRAMA / MAILA BAKOITZEKO FUNTZIOAK

Aurreko puntuan esandakoa ere baliagarria atal honetarako, zeren organigramaren arabera maila bakoitzeko betebeharrak finkatu behar dira, horietatik dirutan zehaztu beharrekoak ezagutzeko.

Koordinazio orokorra

Euskal Herri osoko ekimena izanik, Euskarak 365 egun dinamikaren koordinatzaileak Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Nafarroako Euskarabidea eta Euskaltzaleen Topagunea izango dira. Ipar Euskal Herriko ordezkartza publikoa koordinazioan sartzeko ahaleginean ari dira.

Batzordearen koordinazioa eta ekimenaren kudeaketa Euskaltzaleen Topaguneko kideak ari dira lantzen, mahaiko gainontzeko eragileekin

koordinatuta. Ekimenaren zabalkundea, aldiz, hiru erakundeak ari dira egiten.

Maila honetan landuko diren baliabideak:

- **Baliabide linguistikoak.** Herrietako sustatzaile batzordeetako kideentzako eta parte hartzaile guztientzako formazio saioak, moodle plataforma eta tresnak (bideo laburrak eta bestelakoak).
- **Komunikazio baliabideak.** Herrietarako komunikazio plan erdua eta komunikazio tresna orokorrak (marka, euskarri orokorrak, webgunea, spotak...).
- **Bestelako baliabideak.** Herrietan talde motorrak sortzeko aktibazio saioak eta hitzaldiak, sustatzaileentzako moodle plataforma, izen ematerako datu basea, kudeaketarako baliabideak, txapen ekoizpen zentralizatua eta abar.

Gernika-Lumoko Sustatzaile Batzordearen zeregin zehatzak:

- **Tokiko dinamizazioa.** Herriko sustatzaile sarea aktibatzeke lana eta ekimena gauzatzeko herriko koordinazioa.
- **Formazio saioak.** Gutxienez, *ahobizi* eta *belarriprestentzako* prestakuntza saioak antolatzeke baliabideak bideratzea.
- **Tokiko komunikazioa.** Komunikazio euskarri orokorrak herrira egokitzea, inprimatzea eta bestelako komunikazio lanak egitea.
- **Materiala: txapak.** Herriko parte hartzaileentzako txapen produkzioaren kostua eta herriko banaketa lana.
- **Ekintza / ekitaldi bereziak.** Herrian lehenesten diren ekitaldi, hitzaldi eta bestelakoak.

5.- SUSTATZAILE BATZORDEA – LAN BANAKETA

Sustatzaile Batzordea eratzeke beharrezana nondik datorren argitu eta bere osaerarako proposamena finkatu ondoren, beharrezkoa zaigu islatzea batzorde horretako kide bakoitzaren zereginak gutxi gora-behera:

KIDEAK

ZEREGINAK

Euskara zinegotzia	- Udalarekiko zubi lana (udal aurrekontuan baliabideak aurreikustea) eta Udalaren konpromisoaren ordezkaritza
Euskara teknikaria	- Batzordearen koordinazioa (deialdiak / aktak) - Gastuen kudeaketa - Inprentarekiko zereginak - Komunikazio planaren koordinazioa - Koordinazio orokorrarekiko zubi lana - Aho-bizi eta berlarriprest-en fitxak jaso (udala) eta 365eko dinamizatzaileari jakinarazi
HITZARGUNEko dinamizatzailea	- 365 Ekimenerako dinamizatzaileari laguntza orokorra - Hitzarguneko kideen artean kanpaina zabaldu - Komunikazio plana garatzen lagundu - Aho-bizi eta berlarriprest-en fitxak jaso eta 365eko dinamizatzaileari jakinarazi
365 Ekimenerako dinamizatzailea	- Kanpainaren zabalkunde orokorra - Esparrukako eragileekin batzarrak - Batzordekideak formatu - Sortutako hiztun/eragile taldeak formatu - Komunikazio plana garatzen lagundu - “Ahobizi” eta “berlarriprest” kideen datu basea eratu eta eurekiko harremanak bideratu
Gernikako AEK / Udal Euskaltegia	- Ikasleen artean kanpaina hedatu - Komunikazio plana garatzen lagundu (ikasleei) - Aho-bizi eta berlarriprest-en fitxak jaso eta 365eko dinamizatzaileari jakinarazi
Busturialdean euskaraz Bizi	- Herri mailan zabalkundea egiten lagundu - Komunikazio plana gauzatu herri mailan - Aho-bizi eta berlarriprest-en fitxak jaso eta 365eko dinamizatzaileari jakinarazi
Maier / Gernika Garbiketak	- Erakunde gisa izena eman eta Sustatzaile Batzordearekin koordinatu - Komunikazio plana garatzen lagundu (enpresan) - Aho-bizi eta berlarriprest-en fitxak jaso eta 365eko dinamizatzaileari jakinarazi
Seber Altube / Institutua	- Kanpainaren zabalkundea irakaskuntzan (gazteak eta gurasoak) - Komunikazio plana garatzen lagundu (irakaskuntzan) - Aho-bizi eta berlarriprest-en fitxak jaso eta 365eko dinamizatzaileari jakinarazi
Sindikatuak	- Erakunde gisa izena eman eta Sustatzaile Batzordearekin koordinatu - Komunikazio plana garatzen lagundu (enpresetan) - Aho-bizi eta berlarriprest-en fitxak jaso eta 365eko dinamizatzaileari jakinarazi

6.- EKIMENERAKO BALIABIDEAK / AURREKONTUA

Gure udalerriari dagokionean, ekimena garatzeko baliabideak zerrendatu eta dirutan baloratuko ditugu ahal dugun neurrian:

Gastuak

Ekimenaren Dinamizatzaila (ARTEZ enpresa; Hitzargune kanpainarako bulegotik) astean 7 ordu urtarrilean hasita	10.500
Komunikazio plana : - Kartelak, diptikoak, ploterrak..... 3.000 euro - Iragarkiak komunikabideetan..... 1.500 euro	4.500
Materiala (paparrerako txapak)	3.000
Formazio saioak (koordinazio orokorretik jaso ahal izango ditugun euskarriekin geure baliabideekin bideratu)	0
GUZTIRA GASTUAK	18.000

Diru sarrerak

“Kanpoko kontratazioak” partida – dinamizatzaila, paparrekoak...	16.500
Hitza (publizitaterako partida – iragarkiak-)	1.500
GUZTIRA DIRU SARRERAK	18.000

Gernika-Lumon, 2018ko urtarrilean

Marisa Aldamizetxebarria
Euskara Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia
Hizk. normalizaziorako teknikaria

1. ERANSKINA

365 EGUN EUSKARAZ (TXOSTENAREN LABURPENA)

2. ERANSKINA

“11 EGUN EUSKARAZ” EKIMENA



gernika-lumoko
euskara zerbitzua



3. ERANSKINA

KRONOGRAMA

EUSKARAK 365 EGUN	17-mai	17-eka	17-uzt	17-lra	17-urr	17-aza	17-abe	18-urt	18-ots	18-mar	18-api	18-mai	18-eka	18-uzt	18-abu	18-lra	18-urr	18-aza	18-abe	19-urt
PROIEKTUAREN KRONOGRAMA OROKORRA																				
AURRELANKETA ETA DISEINU FASEA																				
Udaltop topaketan proposamena aurkeztu	12																			
Proposamena eragileei aurkeztu eta ekarpenak jaso																				
Ekarpenen azterketa egin eta behin-betiko proposamena zehaztu																				
Gainontzeko eragile orokorrekin elkarlana abiatu (euskalgintza, administrazioa)																				
GIZARTERATZEA PRESTATZEKO FASEA																				
Komunikazioa: estrategia definitu eta horren arabera agenda zehaztu																				
Komunikazioa: irudia, diseinua, webgunea, sare sozialak, euskarriak sortu																				
Komunikazioa: zabalkundea eta herritarren prestakuntza fasea																				
Baliabideak sortu: ahobizi, belarriprest, entitateen urratsak																				
Nazio mailako sustatzaile sarea lotu																				
Euskaltzaleen elkarteekin 2017ko abenduaren 3ko herrietako aurkezpenak landu																				
Herrietako lan-mintegia					7															
Udalei proposamen idatzia helarazi																				
GIZARTERATZE FASEA																				
2017ko abenduaren 3aren bueltako aurkezpena																				
HERRIAK MARTXAN JARTZEA																				
Eskualde edo lurraldeko aurkezpenak																				
Herrien (batzordeen edo entitateen) izen emate fasea																				
Datu basea martxan: erakundeak eta norbanakoak																				
Izena eman duten herrien aurkezpena																				
HERRIETAN PRESTAKETA FASEA + NORBANAKOEN IZEN EMATEA																				
Baliabideak (gida, tresneria, formazio eskaintza) herriei eman																				
Norbanakoen izen emate fasea																				
Pedagogia: tailerrak, pilula txikiak eskaini																				
2019rako plana definitu eta martxan jarri																				
11 EGUN EUSKARAZ																				
11 egun euskaraz ekimena martxan																				
ABENDUAK 3																				
Azken eguneko ekitaldia + aurrera begirako planaren aurkezpena																				

Oharrak

Komunikazio estrategia eta plana definitu ahala, bestelako mugarririk sor daiteke. Parte hartzea sustatu eta tentsioa mantentzera begira. Eskualde, lurralde edo nazio mailako sustatzaileen arteko bilerak eta lanmintegiak, beharren arabera antolatuko dira.

EUSKARAK 365 EGUN	17-urr	17-aza	17-abe	18-urt	18-ots	18-mar	18-api	18-mai	18-eka	18-uzt	18-abu	18-ira	18-urr	18-aza	18-abe	19-urt
Herrietako ekimenen kronograma eredua																
Herriko euskalgintzako eragileei ekimena aurkeztu																
Herrietako lan-mintegia	7															
Euskaltzaleak saretu, hala ez dauden lekuetan																
Batzordea osatzeko lanean hasi																
Herriko finantziaketa lotu																
2017ko abenduaren 3aren bueltako gizarteratzea																
Batzordea osatu eta martxan jarri																
Batzordeko kideen funtzio banaketa zehaztu																
2018ko herriko plangintza zehaztu eta kronogramara eraman (ekintzak, komunikazioa...)																
Ekimenean herri gisa izena eman																
Herriko dinamizatzailerak (liberatuak) lanean hasi																
Herriko merkataria eta eragile euskaltzaleen mapa egin																
Batzordeko kideak formatu																
Bestelako eragileei ekimena aurkeztu																
Jendea animatzeko aktibista sarea osatu (batzordetik kanpo lagunduko dutenak)																
Herriko entitateen urratsak jaso																
Pertsonen izen emate garaia																
Parte hartzaileentzako aholkuak zabaldu (belarriprest / ahobizi)																
Tailerrak eman																
Ekintzarako materiala banatu (txapak)																
11 egun euskaraz ekimena																
Balorazioa eta aurrera begira jarri																